

Donostia 2016an

Laburpena: *Abiapuntutzat Donostiaren 2016ko hiriburutza hartuta, Donostiaren hiri-eredua izan dut aztergai. Gure ereduak azpiegituren oinarri sendoa du; azpiegitura ikusezin eta ukiezinetan zimendatzen da, eta honako hauek ditu ardatz: gizarte-kohesioa, jasangarritasuna, bizikidetzeta, balioak, I+G+Bko inbertsioa, kultura eta gobernantza.*

Gako-hitzak: Donostia 2016, hiri-eredua, azpiegitura ikusezinak, jasangarritasuna, gizarte-kohesioa, plangintza estrategikoa

Abstract: *Using San Sebastian 2016 Capital of Culture as a starting point, we shall explore the model of the city of San Sebastian - a model which is based on invisible and intangible infrastructure and which revolves around social cohesion, sustainability, coexistence and values, investment into R&D&I, culture and governance.*

Keywords: San Sebastian 2016, urban model, invisible infrastructures, sustainability, social cohesion, strategic planning



Kepa Korta Murua

Zuzenbidean lizentziaduna (EHU).
Donostiako Estrategia Bulegoko zuzendaria

Jasotze data: 2015-10-23 / Onartze data: 2015-12-28

Donostia Europako Kultur Hiriburu izango da 2016an, Poloniako Wroclaw hiriarekin batera. Nazioarteko lehen mailako gertaera hori, beste edozein tokitan, hirian eraldaketa fisiko itzelak egiteko akuilu izango litzateke; halaxe gertatu zen Marseillan eta Lyonen, hiri ezagunenetariko bi aipatzearren.

Donostiaren kasuan ez da hain agerikoa, nahiz eta, zenbait tokitan, handia izango den eraldaketa hori, hala nola Tabakalera–Tren-geltokia–Autobus-geltoki berria ardatzean. Zentraltasun berri horrek izugarritzko potentziala du, irisgarritasunari eta zentraltasunari dagokien potentzial izugarria duelako. Hor dugu Musikene berria ere, Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegia.

Kultur Hiriburuaren eredia desberdina da, beraz. Azpiegitura ikusezinetan oinarritzen da gehienbat; hau da, elkarlanean diharduten eta proiektu berriak sortzeko gai diren pertsonen osatutako sarean. «Hardwarea» bai, baina «softwarea» da batez ere.

Hori horrela izanik, zailagoa da proiektua erakarmen bihurtzea, baina horrek ez du esan nahi indar gutxiago duenik.

Hain justu ere, horretaz mintzo da Charles Landry idazlea *The Creative Cities* liburuan. Kasu gehiegitan, hiriak garatzean, itxuraz bereziak diren eraikin ikusgarriak sortzen dira, baina sare kultural, sozial edo ekonomikoan inolako eraginik ez dutela. Ez da hori gure kultur hiriburuaren proiektuak hartu duen eredia, ez eta gure hiriarena ere. Egia da eraikin bereziak izan badirela; lehen aipatu ditugu batzuk: Kursaal, Tabakalera, Basque Culinary Center, Musikene berria... Alabaina, eraikin horiek gehiago erreparatzen diote edukiari, eraikinaren beraren diseinu fisikoari baino, diseinu fisikoak ere garrantzia duen arren.

Aurrekariak: eredia birsortzea

Kultur hiriburutzaren prozesua 2008. urtearen hasieran sortu zen, oso gogoan dudan bilera batean. Maiatzaren 30 hartan, hautagaitzarekin batera, Eduardo Chillidaren lan batean oinarritutako marka ere aurkeztu genuen, Chillida-Belzunce familiak lagatakoa.

Zergatik onartu genuen erronka hori? Ziurrenik, gutariko bakoitzak bere ikuspegia izango du. Nolanahi ere, garai hartan, honelako galderak egiten genizkion geure buruari: Zeintzuk dira gure beharrak? Zergatik hasi beste hiri batzuekin lehian, gure hiriak, itxuraz behintzat, ez badu ekitaldi handien beharrik bere eredian aurrera egiteko?

Izan ere, pertzepzioari buruzko inkestek erakusten zutenaren arabera, donostiarren gehiengoak pozik edo oso pozik zegoen Donostian bizitzen.

Dena den, hiriek, pertsonen bezalaxe, mugitu egin behar dute toki berean jarraitu ahal izateko. Etengabeko berrikuntza-prozesuari egokitzeko aukera emango duten erronkak behar ditugu. Eta gure hiriak, kulturaren espezializatuta egonik, berrantolatzeko beharra zeukan, XXI. mendeko kultura eraikitzeko.

Ez genuen kultura-azpiegitura handien beharrik, bai baikeneuzkan, ordurako. Gainera, sortze-bidean zegoen Tabakalera. Horretaz gain, hurbileko kultura-zentroen sarea geneukan, eta hiri gutxitan aurki daiteke horrelakorik. Gure kultura-eredua ez zen eta ez da elitista. Gure eredian, ekitaldi handiak antolatzeko garaian, kulturaren eta musikaren arloko zentroen sare horrekin konektatuta egiten dugu lan. Kultura-ehundura hori bageneukan arren, kultura-sorkuntza indartzera bideratu behar genuen sarea, eta ez hainbeste kultura-programaziora. Eredua birsortzea.



Irudia ~ Aieteko parkean kokatuta dagoen Aieteko Kultur Etxearen aurrealdea.
Egilea ~ Donostiako Estrategia Bulegoa



Irudia ~ 2015. urteko Olatu Talka jaialdiaren baitan burututako ekimena.
Egilea ~ Donostiako Estrategia Bulegoa

Eredua birsortzeko prozesu horretan, bagenuen, bai, kulturaren arloan nazioarteko gertaera handi baten beharra. Egia esan behar badut, nire ustez, gutariko gehientsuenok zera pentsatzen genuen: benetan garrantzitsuena hautagaitza-prozesua bera zela; hiriburu izatea lortzea baino askoz gehiago.

Bigarren behar bat ere bageneukan, aurrekoa bezain garrantzitsua: gatazka gaintzea. Nola berreraiki eta normalizatu bizikidetzak, indarkeriaren ondorioz gizartearen gertatutako haustura-prozesuaren ondoren?

Proiektuaren kasuan, bageneukan galdera horretarako erantzunik: kultura baliabidez hartuta. Ba al zegoen modurik kultura elkarrizketa sustatzeko baliabidez hartuta geure arazoak konpontzeko? Eta, aldi berean, eskain al genezakeen bizikidetzak-eredu bat, Europar barrena zabaltzeko modukoa, oraindik ere hor dagoen eta behin eta berriz agertzen den indarkeria gaintzeko (Balkanak, Ukraina...)?

Bestalde, hori guztia gauzatzeko, hiri beste modu batera eraikitzeko eredu behar genuen; jasangarritasuna, elkartasuna, gobernantza eta halako balioak zertuko zituen eredu.

Gogoan ditut hautagaitzaren bideoan jendea Europara bidean patera batean sartuta erakusten ziguten irudiak... Gaur egun, oraindik ere, ikusten ditugu horrelako irudiak.

Nire ustez, kolektibo jakin batzuek kultur hiriburutzari egindako kritika asko beste eredu batzuen eraginpean egindakoak izan ziren; ez, behintzat, gure ereduagatik.

Azkenik, kultur hiriburu izateak bultzada handia eman dio Euskal Eurohiriaren esparruko lankidetzari, eta Baionatik Donostiara bitarteko Iparraldeko eta Hegoaldeko erakunde gehientsuenak biltzen dira hor. Lankidetzak-ziklo berriari eman diogu hasiera, eta itxaropenez betetako ikuspegia zabaldu du datozen urteotarako.

Hiri-eredua. Donostiako 2020 Estrategia

Testuinguru horretan txertatzen da kultur hiriburutzak, hiri-estrategia bati erantzuten dion proiektua den aldetik. Donostiako 2020 Estrategia 2010ean onartu zen, eta estrategia horretan jorratzen den hiri-ereduan, balioak, sormenarekin lotutako jardura ekonomikoak, jasangarritasuna eta nazioartekotzea ez dira hitz soil.

Donostia gai izan da aurrera egiteko eta bere burua berrantolatzeko. Eredu horrek berrikuntzaren aldeko etengabeko dinamika eragiten du; bai eremu fisikoan, bai ukiezinen eremuan. Horren zergatia ez dago inolako hirigintza-jardunekin lotuta, baizik eta erabakiak hartzeko prozesuekin (ideia berriak nola sortu, nola proposatu, nola onartu, eta nola gauzatu diren).

Puntu horri dagokionez, hirian izandako une historiko jakin batzuk nabarmendu nahi nituzke, biziki garrantzitsuak izan baitira.

Harresiak eraitea. Kortazar zabalgunea sortzea —hedadura handiagoko hiri berria sortzeko erabakia nola hartu zen, adibidez—. Krisialdi jakin batzuetan, garai haietarako handia zen kultura-eskaintza sortzea (Musika Hamabostaldia, Zinemaldia edo Jazzaldia). Hiriaren azkenaldiko historiaren une garrantzitsu horietan guztietan, gizarte-mugimenduak izan dira gakoak; alde bateko edo besteko gizarte-mugimenduak.

Ildo beretik, interesgarria da jakitea nola sortu ziren Victoria Eugenia antzokia, Maria Cristina hotela, Ozeanoko Perla eta abar egiteko proiektuak: hain zuzen, XX. mendearen hasieran, Marino Tabuyo zenean Donostiako alkate. Izatez, XIX. mendearen amaieran sortutako Club Cantábrico elkartearen inguruan biltzen ziren pertsonen mugimenduaren buru zen Tabuyo.

Juanjo Goñik *El cambio son personas* liburuaren izenburuan



ako ekintza artistikoetako bat.

Irudia ~ 2015. urteko Olatu Talka jaialdiaren baitan burututako kultur-ekintza bat.
Egilea ~ Donostiako Estrategia Bulegoa

modu guztiz grafikoan ederki adierazten duenez, hiriak pertsonetan oinarrituta eraikitzen dira, ez eredu faronikoetan oinarrituta, non eta pertsonen jarreraren aldaketa eragiteko «pizgarri» ez diren. Horregatik gertatzen da hain zaila arrakasta izan duten ereduak kopiatzea.

Nire ustez, kapital soziala da hiria eraikitze gako; betiere, gizartearen autoantolaketatik abiatuta, ekimenak sortzeko eta lankidetzan lan egin ahal izateko gaitasuntzat hartuta.

Michael Michalcko autoreak lankidetzan oinarritutako pentsamenduaren adibide historikoak ematen ditu *Los secretos de los genios de la creatividad* liburuan; hala nola Europako fisikariaren mugimendua (A. Einstein, H. Bon, W. Pauli...) eta Greziako filosofoena. Adibide horietaz baliatuta, gizateriaren jakintzan aurrerapauso handia eragin zuten lankidetzaproiektuak aurkeztu ditu.

Eta hara: gako horietako asko aurki ditzakegu gure inguruko esperientzietan. Hortxe dugu, adibidez, Euskal Sukaldaritza Berriaren¹ mugimendua, etengabeko berrikuntza-prozesua elikatzen jakin duena, euskal sukaldaritza goitik behera eraldatu arte, jakintza eta etengabeko elkarriketak izanik abiapuntu, eta beste herrialde batzuetako gastronomia-jakintzarekin lotutako esperientzietan oinarrituta.

Egun, gastronomia-unibertsitate bat daukagu Donostian, berrikuntza-zentroa ere badena (Basque Culinary Center), eta, besteak beste, aipatutako mugimenduan du jatorria. Gaur egun «berrikuntza irekia» deiturikoaren adierazgarri dela esan genezake —horra beste hitz berri bat, beti egon diren prozesuak definitzeko—.

Zientziaren eta Berrikuntzaren hiria

Gure hiri-eredu estrategikoan, adibide gehiago ere baditugu:

¹ Egun erabiltzen dugun terminologiari jarraiki, kluster bat dela esan genezake; baina benetako klusterra, ez eskuliburuetakoa.

Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko apustua, esaterako.

2010eko Plan Estrategikoan, huraxe zen ardatz estrategikoetako bat. Lankidetzaren publiko/publikoa eta publiko/pribatua egon den hamar urte hauetan, ahalegin handiak tarteko, I+G+Bn egindako inbertsioa barneproduktu gordinaren % 1,42 izatetik % 3 inguru izatera iristea lortu dugu. Horri esker, nabarmen egin du gora ikertzaileen, zentro teknologikoen eta ikerketa-zentroyen kopuruak.

Berriro ere, lankidetzaren gako. Hiriaren izaera turistikoa eta kulturala indartzen duen hiri-eredua eraikitzea, behin eta berriro birmoldatua, ikus-entzunezko eta zientziaren arloko sektoreekin lotura duten jardueren ekonomikoak eginda etorkizuneko aukera handiak zabalduko dituzten lau eremutan: nanozientziak, biozientziak, neurozientziak eta IKTak.

Ildo horretan bertan, indartzen ari diren eta etorkizuneko aukera handiak dituzten sektoreetan ari gara lanean, hala nola ikus-entzunezko sektorean, Ikus-entzunezko Berrikuntzaren Poloarekin, eta hiriarekin lotura handia duten jarduerekin (osasuna, surfa edo moda, kasurako) lotutako mikroklusterrak sortuta, bai eta beste hainbat eremutan ere: energia berriztagarriak (Enertic proiektua) edo smart city eremuarekin lotutakoak, Steep proiektuan.

Hori guztia bat dator gure ereduarekin, gure eredu honetan jasangarritasuna ez baita hitz soila, lehen esan dudanez. 2008an Aldaketa Klimatikoaren aurkako Plana onartu zuen Donostiak, bai eta beste hainbat plangintza ere, horren eraginez; esate baterako, Agenda 21, mugikortasun publikoa eta kutsatzen ez duen garraio-mugikortasuna indartzeko ekintzak —hainbat eta hainbat bidegorri egin ziren hirian; besteak beste, Kontxako pasealekuan eta Morlanseko tunelean—, eta Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Plana (2008-2024) onartu zen.



Irudia, goian ~ Musikene, Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegiaren egoitza berria, Donostiako Europa Plazan.
Irudia, eskuinaldean ~ BCC Mondragon Unibertsitateari atxikitako Donostiako Gastronomia Zientzien Fakultatea. Donostiako Juan Avelino Barriola pasealekuan kokatuta.



Hiri kohesionatua

Gure hiri-ereduak, hortaz, kalitatea du xede. Kalitatea izan nahi du bereizgarri, etorkizunari begiratzen dioten jarduera ekonomikoekin, sarean lan eginez, munduari zabalik, baina gizarte-kohesioa duela helburu estrategiko.

Egia da Donostiaren barne-produktu gordina hiru euskal hiriburuetakoa handiena dela (34.589 euro 2012an. Eustat). Baina, era berean, 2000ko hamarkadaren hasieran Metròpoli Fundazioak egindako azterlan baten arabera, errentaren arloko desorekaren maila txikiagoa zen Donostian gainerako bi hiriburuetan baino: Donostian 1/8, Gasteizen 1/10 eta Bilbon 1/12.

Horregatik, hiriaren estrategia lantzeko garaian, saihestu egin behar ditugu bazterkeria eta ekitaterik eza. Uneotan, adibidez, gizarte-bazterkeriari aurre egiteko moduak aztertzen ari gara. Egia da «zainketa aringarri» en sistema bat daukagula horretarako; Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, kasurako—, baina ez dugu jotzen bazterkeria hori eragin dezaketen faktoreetara, errealitate horri konponbidea emateko edo pertsona eta kolektibo asko egoera horretara irits daitezzen saihesteko. Eta hori hiriaren helburu estrategiko bat da.

Alderdi horiek guztiak osatzen dute hiri-eredua; horiek, eta dimentsio honetako artikulua batean ezin deskriba ditzakegun beste alderdi askok. Hiri inklusiboa bultzatu nahi duen eredu dugu hau, Zientziarekin eta Berrikuntzarekin lotutako jarduerekin, eta sektore turistikoak donostiarren beharrek lotuta dagoen eredu jasangarria sustatzen duela, atzeraelikatuz —kultura-ekitaldi asko ezin antola genitzake, turismoak ematen dizkigun dimentsio eta ikusgaitasuna izango ez bagenu—. Ez da lan erraza, baina hiriaren helburuetako bat da, halaber, eredu turistikoa jasangarri bat eratzea, agente publiko eta pribatuekin estu-estuki lotuta.

Bibliografia

Estrategia Bulegoa (2006): *Herritarren pertzepzioari buruzko inkesta*, Estrategia Bulegoa, Donostia. Hemen kontsulta daiteke: <<http://www.donostiafutura.com/eu/gure-argitalpenak/herritarren-pertzepzioari-buruzko-inkesta-2006>>.

Estrategia Bulegoa (2011): *Donostiako E2020DSS Plan Estrategikoa*, Estrategia Bulegoa, Donostia. Hemen kontsulta daiteke: <<http://www.donostiafutura.com/eu/gure-argitalpenak/e2020dss-donostiako-plan-estrategikoa>>.

Landry, C (2008): *The Creative City: A Toolkit for Urban Innovators*. Routledge, Londres.

Goñi Zabala, J.J. (1999): *El cambio son personas. La dirección de los procesos de cambio*, Díaz de Santos, Madrid [8479783982].

Putnam, R.D (2000): *Bowling Alone: The Collapse and Revival of American Community*, Simon & Schuster, New York.

Michalko, M (2007): *Los secretos de los genios de la creatividad*, Gestión 2000 (Grupo Planeta), Bartzelona.

Estrategia Bulegoa (2004): *2010 Donostiako Plan Estrategikoa*, Estrategia Bulegoa, Donostia. Hemen kontsulta daiteke: <<http://www.donostiafutura.com/eu/gure-argitalpenak/2010-donostiako-plan-estrategikoa>>.

Donostiako Udala (2008): *Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Plana 2008-2024*, Donostia. Hemen kontsulta daiteke: <<http://www.donostiafutura.com/eu/beste-argitalpenak/2008-2024-hiri-mugikortasun-jasangarri-plana>>.

Donostiako Udala (2008): *Donostiako Aldaketa Klimatikoaren Aurkako Plana*, Donostia. Hemen kontsulta daiteke: <<https://goo.gl/AIN0sW>>.

Fundación Metròpoli (2001): *Euskal Hiria*, Proyecto Cities, Gasteiz.